

LEMOATX 2018

Lekua:	Lemoa (Bizkaia)
Modalitatea:	Arkeologia, ondare berreskuratzea eta memoria historikoa
Helburua:	Gerra Zibilean izan zen bataila hartu zuen Lemoatx mendi-tontorrean dagoen trintxera-gunea lehengoratzea.
Egunak:	Uztailaren 16tik 30era // Uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina:	18-26 urte
Plaza-Kopurua:	20 txanda bakoitzean
Mota:	Nazioartekoa
Hizkuntza:	Ingelesa (Ezinbestekoa da ingelesez ondo hitz egitea)

Lemoako udalerrri bizkaitarra ingurune paregabean dago, Gorbeia Parke Naturaletik gertu. Arratiako eskualdean dago kokatuta, eta historiako bi gerra garrantzitsuren eszenatoki izan da. Horietako bat Gerra Zibila izan zen, zeinetan, 1937ko ekainaren 16an, nazionalen bandoak okupatu zuen Lemoatx inguruan bataila latz bat izan ostean ehunka gudari hil ziren.



Bataila horrek utzitako arrastoak dira, hain zuzen ere, Lemoan egun garatzen den auzolandegiaren jatorria. Izan ere, auzolandegiaren proiektua trintxerak lehengoratzean datza.

Informazio gehiago:

Lemoako Udala: <http://www.lemoa.net/eu-ES/Orrialdeak/default.aspx>

Lemoatx 1937: lemoatx1937.blogspot.com.es

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

2018an seigarrenez egingo da auzolandegia eta, arestian labur esan den moduan, helburua izango da Lemoatx mendi-tontorreko trintxera-gunea lehengoratzea, Gerra Zibila jokatu zen lekuan.



Helburuetako bat oroimen historikoa berreskuratzea da. Aurreko urteetan egindako lanak espero baino trintxera gehiago utzi zituen agerian. Aurkikuntza horiek inguruan eta bertako biztanleen artean oihartzun handia izan zutenez, aurtan aurreko urteetako lan-ildoari eutsiko zaio.

Lanaren zuzendaritzaz Aranzadi Zientzia Elkarteak arduratuko da.

<http://www.aranzadi.eus/?lang=eu>



ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Txangoak, bisita kulturalak Euskadiko hiri nagusietara eta kostaldera, kirol-ekintzak, jolasak... antolatuko dira. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.

ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- | | |
|---|--------------------------------|
| ➤ Lo-zakua (ez dago izararik) | ➤ Kapela eguzkitarako |
| ➤ Burkoa (behar baduzu) | ➤ Eguzkitako krema |
| ➤ Garbitasun pertsonaleko artikuluak | ➤ Eguzkitako betaurrekoak |
| ➤ Dutxarako eta igerilekurako toallak | ➤ Bainujantzia |
| ➤ Berokiak eta euritako arropak | ➤ Txankletak |
| ➤ Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak | ➤ Motxila txikia txangoetarako |

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

Parte-hartzaileek honako hauek eraman beharko dituzte auzolandegira:

- NAN edo atzerritzar-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: San Antolin-Lemoatx mendian dago lan-eremua, ostatutik 3 kilometrora.

Ostatua: Lemoako eskoletan hartuko da. Oso instalazio egokiak dira eta honako hauek dituzte: dutxak, lau areto, egongela handi bat, sukaldea, jangela eta udal-igerilekuak. Gainera, udalaren kirol-instalazioak erabili ahal izango dira.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegia hasten den egunean izango da topaketa, **18:00etan, Lemoako EUSKOTREN geltokian.**

Ordu horretarako iritsi ezin denak (betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio), aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

[Lemoaren \(Bizkaia\) kokapen-mapa](#)

BILBOTIK

Autobusa Lemoara iristeko modurik onena da.

Aireportura iritsiz gero, Bilbo 10 kilometrora dago eta Lemoa 16ra.

Bilboko aireportutik lineako autobusa dago Bilboraino, Termibus geltokiraino (Bilboko autobus-geltokia), ordu erdiro.

Termibusetik Lemoara Bizkaibus konpainiarekin joan daiteke, BILBO – LEMOA – ZEAUNURI ibilbidea 30 edo 45 minutu (autobidetik edo errepide nazionala hartzen badu) inguruan egiten duen autobusean.

Euskotren bidez ere hel daiteke Lemoara, maiztasun aldakorreko trenetan. Atxuriko geltokik 20 bat minututan heltzen da Lemoara. Informazio gehiago: [Euskotren](#).

VITORIA-GASTEIZTIK

AUTOBUSEZ

LA UNIÓN konpainiaren autobusa har daiteke (harremanetarako telefonoa - Gasteizen: 945 26 46 26 eta Bilbon: 94 427 11 11).

DONOSTIATIK

Donostiatik Lemoara joateko, Bilbora autobusean joatea litzateke egokiena, eta hara helduta, lehen azaldutako urratsak jarraitzea.

Autoz, A-8 autobidea hartu beharko litzateke Bilborako noranzkoan, Amorebieta-Etxanoko irteeraraino. Herri honetatik, BI-635 errepidea hartu behar da, Lemoarako noranzkoan (5 km).

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- E-posta: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehen, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuotak eta arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak- Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).